

“Justizia denontzat” kantuaren estreinaldia, Oroituzen ekitaldian

Larunbat honetan Oroituz elkarteak 1936ko altxamendu militarren biktimei omenaldia egingo die, 12:00etan hasita.

Ekitaldia, ohi bezala, Alfaro parkean izango da. Oraingon, **Joxe Mari Oizartzabalek** konposatu eta **Aitor Mendiluzek** idatzitako “Justizia denontzat” kantua eskainiko dute lehen aldiz. Abestiak, oinarrian, biktimek gaur egun lau haizetara zabaltzen jarraitzen duten aldarriarekin bat egiten du: hots, egia, justizia eta erreparazioa. Izan ere, berrogei urteko diktaturaren eta beste hainbeste urteko demokraziaren ostean, orduko galdera askok *-Non dira? Nora eraman*



Fusilatuen omenezko ekitaldia, iaz, Alfaro parkean.

zituzten?– erantzunik gabe jarraitzen dute.

Injustiziaren ideia horren inguruan hausnarketa egiten dute bi bertsoek, hain zuzen. Doinua osatzerakoan ideia horretan inspiratu dela aitortu du Oizartzabalek: “Doinu solem-

nea itsasi nahi izan diot; ukitu funebrea eduki dezake akaso, baina azkenean abesbatzak ohikatzen duen *Justizia denontzat* garrasiak bizitasuna ematen dio abesti osoari”. Larunbatean eskainiko dute kantua, lehen aldiz, jendaurrean.

ESTREINALDIA

Justizia denontzat

Hitzak: Aitor Mendiluze.

Musika: Joxe Mari Oizartzabal.

- Isilik dago harri iluna oihu mutu bat galgatzten, isilik paper orri askeak hizki minak asaldatzen. Isilik lotsak dituzten haiek, izana aski ez bazen, isiltasunak ez du ordea gertatu zena aldatzen.
- Isilarazi ziren ahotsek inoiz baino ozenago, oihu egiten dute nahiz eta larogei urte igaro. Ezin ukatu, ezin ahaztu, ezin isildu gehiago herri hau bere galde ikurren erantzunaren zain dago.

Aurten, Oroituzek ekitaldira gonbidatu duen elkarte Elgoibar 1936 izango da.

Parte hartze prozesua auzoz auzo

ANDOAIN AUZOZ AUZO



Goiburun abiatu zen parte hartze prozesu berria, apirilaren 11n.

[ANDOAIN, 8. ORRIALDEA]

Super H festaren bigarren edizioa



Apirilaren 30ean izango da, mendi lasterketaren bezperan.

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]

Igoera eskura dute

Ganbara saski taldeak partida erabakiorra jokatu du, larunbat honetan.

[KIROLAK, 11. ORRIALDEA]

Outlet azoka Andoainen, ostiralean

Salkin elkarteak eta Andoaingo Udalak salerosketa sustatzeko ekimena antolatu dute, ostiral honetarako.


Ostiral honetan, apirilak 15, Andoaingo hainbat merkatalgunetan produktu ugari prezio onean erosteko aukera izango da. Aurreko denboraldiko arropa, beherapenetan jarritako produktuak,... mauka ugari



Outlet azokan parte hartuko duten dendariak, Jon Zulueta zinegotziarekin batera.

aurkitu ahal izango dira. Hauexek dira egun osoko Outlet jardunaldian parte hartuko duten dendariak: Amantegi, Iturbe zapatadenda, Xare oinetakoak, Durazno, Xelene, Alice, Martin elektrizitatea, Orte, Izeia, Ormendi kirolak, Ernaitza liburudenda, Francis, Maindi, Anita, Gloss arropa denda, Stop liburudenda eta Gamer.

Outlet azoka Andoainen:
10:00-13:30 / 17:00-20:00.
Apirilak 15, ostirala.



Next stop: Greenland

Diaporama - Bidaiateka

Apirilak 20, asteazkena

19:30

Saroben. DOAN

Hizlaria: Jon Goitia



Gaztegun Urnieta



Idiazabal, 13 / behea
20130 Urnieta (Gipuzkoa)
Tel.: 943 333 973
gazteinformazioa@urnieta.eus

APIRILAREN 23AN IKUSKIZUNA SAROBEN

Ipuin erotikoak Saroben, liburuaren egunean

Apirilaren 23an, liburuaren nazioarteko egunarekin bat eginez, ipuin erotikoen emanaldia eskainiko dute Saroben, 19:00etan hasita. Inñistorra eta Muxu goxo elkartearen artean antolatutako ekitaldia

izango da. Maialen Diaz eta Mirian Uhalte iruindarrek lau ipuin erotiko kontatuko dituzte, bi euskaraz, eta beste bi gazteleraz, zuzeneko musikaz lagunduta.

Aurkeztu zuen buruak...

Maialen Diaz: Mirian Uhalte eta Maialen Diaz gara. Iruindarrak gara biak, nahiz eta ni gaur egun Madrilén bizi naizen. 30 eta 27 urte ditugu, eta "Plazerra gurea da. El placer es nuestro" ipuin saioa eskaintzen ari gara elkarrekin.

Noiz eta nola hasi zineten ipuin erotikoak kontatzen eta zein izan zen hori egiteko arrazoia?

M.D.: Aspaldian nengil haurrentzako ipuin saioekin, eta ipuin erotikoak kontatzeko gogoz nengil. Mirian eta biak Euskabaret izeneko musika taldeko partaideak gara; iaz festa bat antolatu genuen kontzertu bat emateko, eta horren aurretik ipuinak kontatzea ideia polita izan zitekeela iruditu zitzaigun. "Plazer gaua" izeneko festan hasi zen gure proiektua.

Mirian Uhalte: Interesgarria iruditzen zitzaigun plazerraren inguruko hausnarketarako espazio bat eratzea, publikoak plazerra bilatzeko modu ezberdinen inguruan pentsa zezan. Maialenek esperientzia zeukan antzezle eta narratzaile moduan eta nik pianojole gisa. Noizean behin inprobisatu izan genuen, berak ipuinak asmatuz eta ni musikarekin lagunduz, ipuinak iradokitzen zidanaren arabera.

Zuen gurasoek ipuinak kontatzen al zizkizuten lotara joan aurretik?

M.D.: Nire ama oso ipuin kontalari ona zen. Gauero asmatzen zituen ipuin berriak, eta gauero horien zain izaten nintzen. Nire aita, bestalde, liburuazale amorratua da, eta beragandik ere literaturarekiko maitasuna bereganatu nuen.

M.U.: Bitxia da, zeren nik ipuinak baino gehiago, amak lotara joaterakoan kantatzen zidala gogoan baitut, eta ikuskizun honetan nire ekarpena bereziki musika esparruan ematen da.

Hori bai, nebari ipuinak kontatzen nizkiola gogoan dut.



Mirian Uhalte eta Maialen Diaz, "Plazerra gurea da" ikuskizuneko protagonistak.

Ipuinak maiz haurtzaroarekin lotu ohi dira. Zer izan behar du ipuin batek heldua erakartzeko?

M.D.: Zaila da erantzutea... Sekreturen bat gordetzen duela antzematen bada, interesgarria izaten dela iruditzen zaizkigu. Irudimenean proiektatzen den pelikula baten antzekoa da ipuina, eta horretarako agertzen diren elementuak ezagunak izan behar dira entzuleentzat, baina ezezaguna den zerbaitekin topatzeko aukera ere eskaini behar zaie. Hitzen soinuak ere garrantzia dauka; hitz zehatzak erabiltzeak asko laguntzen du, musikaltasunarengatik baita esanahiarengatik ere.

Ipuin hitza, gezur hitzaren sinonimoa da zuen ipuinetan?

M.D.: Fantasiaren esparruan mugitzen gara, hitzek unibertso berriak eraikitze eskaintzen diguten espazio horretan. Batzuk kode errealistan kokatzen dira eta beste batzuk ez hainbeste, baina, Sarrionandiak euskararen inguruan esandakoa oinarrituz hartuz, hitzen territorio librea bizi dira gure ipuinak.

Nolakoa da publikoaren erantzuna zuen emanaldietan?

M.D.: Publikoaren aurpegiaren

eta ipuinetan zehar dauden isiluneetan nabari ohi da jendea zer moduz dagoen: ipuinak kontatzea pertsona talde bati hitz egitea da, eta topaketa horretan sortzen den giroa etengabe neurtzen egon beharra dago. Arreta aurpegiak eta irribarrak ikusten ditugunez, jendea gustora egon ohi dela somatzen dugu.

M.U.: Niretzat harrigarria espero ez genituen uneetan publikoaren barreak entzutea da, gauza bera modu anitzetan jaso ahal dela ikustea. Era berean, publikoaren parte hartzea ikustea polita da, Maialenek galdera bat bota eta erantzun beroa dagoenean.

Erotismoa gure bizitzaren parte da, eta esan ohi da ipuin tradizionalak harreman handia dutela erotismoarekin. Topatu al dituzue ipuin klasiko erakargaririk zuen ipuin saioetan kontatzeko?

M.D.: Ipuin tradizional askotan genero rola oso ezarriak daude eta guk halako ikuspuntuak ez genituen sustatu nahi. Ziurrenik, ikuspegi ezberdinak eskaintzen dituztenak egongo dira, baina, momentuz ez ditugu topatu; beraz, ipuinak guk sortu ditugu. Ipuinak asmatzea ere oso gustoko baitugu!

Nondik ateratzen dira zuen ipuinak?

M.D.: Ipuinak guk geuk sortu ditugu, nahiz eta ideiak leku ezberdinetan bilatu izan ditugun, hala nola, Aintzinako Grezian, Amazoniako kontakizun erotikoen, eta abar.

M.U.: Lehenik eta behin, gure ipuinetan protagonistak emakumeak dira. Subjektu aktiboa dira, salbazioaren zain dauden pertsonaiez aspertuta bai-kaude. Horretaz gain, hetero-araualaratu alboratzea eta sexualitatearekin harremanatutako gai ezberdinak jorratzea dugu xedea.

M.D.: Eta zer esanik ez, istorio ederrak sortzen saiatzen gara, zeharkako edukietaz gain, kontatzen diren abenturek baitute garrantzirik handiena.

Zer egiten duzue publikoaren arreta mantentzeko?

M.D.: Publiko helduak errespetuz entzun ohi du, nahiz eta batzutan aretotik sartzeko eta irteteko joerak pixkat despistatzen gaituen. Halakoetan, umorez hartzen dugu eta ahal izanez gero txantxaren bat edo beste egiten dugu.

Ze musika mota erabiltzen duzue ikuskizunean eta ze garrantzi dauka mezua helarazteko unean?

IKUSKIZUNA

"Plazerra gurea da"
Apirilak 23, larunbata
19:00. Sarobe. 3 euro.
Sarrerak salgai:
Sarobe, Ikasmin, Kantoi.

M.U.: Musikak ipuinaren giroa osatzen du, momentu batzutan gertakizunak emozioez zipriztintzen ditu. Beste gozamen iturria da publikoarentzat. Batzuetan, hitzen bidez kontatzen ari den horretara publikoa eramateko beste modu bat da. Musika eta testua sintonian egotea da gure xedea: narrazioan tentsioa badago, musikan ere egongo da, abiaduran edota noten errepikapenean. Momentu lasaietan, aldiz, armonia ezberdina erabiltzen da, tempo lasaigoa.

Pasadizoren bat duzue antzeppen baten inguruan, gertatu zaizuen zerbait edo.

M.D.: Pertsona dexente hurbildu zaizkigu ipuin saioaren ostean gustora egon direla esateko. Berezia izan zen nire herrian ipuin saioa egin genuenean, adin oso ezberdinetako jendea hurbildu zelako, 90 urteko nire amona barne. Erotismoaz naturaltasunez hitz egitea benetan berezia izan zen, herri txikietan halako gaiak publikoki jorratzea ez baita oso ohikoa.

Zergatik esango zenukete jendeak zuen ipuin saioa ikustera joan behar duela?

M.U.: Ilusio handiz aurrera eramandako proiektua da. Ipuin politik sortzen saiatu gara eta sexualitatea ikuspegi ezberdinetatik jorratzen dugu, den-dena zuzeneko musikaz blaituta.

M.D.: Ipuin saioa sentsuala da, plazerra modu ezberdinetan ulertu eta bilatzeko sortua. Beraz, mundu guztia gonbidatua dago. Azken finean, ikuskizunaren izenburuan esaten den bezala, plazerra gurea (guztion) baita.

Apirilaren 30ean hurrei zuzenduriko eguna antolatuko dute

Super H eguna, mendi lasterketaren bezperan

Super H elkartea dagoeneko burubelarri murgilduta dago Super H festaren bigarren edizioaren prestatuntzan. Hain ezagun egin den mendi lasterketaren altzozan jaio zen iaz, eta aurten 2015eko esperientzia arrakastatsua errepikatzen asmoa dute. Izan ere, hurrei eskainitako lasterketa txikiak eta antolatutako gainerako jarduerak Urnietako eta inguruko herrietako familia askoren arreta piztu zuen.

Aurtengo edizioarako pailazoen emanaldia, puzgarriak eta jolasak iragarri dituzte. Eta, nola ez, San Juan plazan egiten den lasterketa txikia. Jaialdia arratsaldeko 16:30ean hasiko da, iluntzeko 19:00ak arte.

Festara gerturatzeko diren familiek antolakuntzarekin bat egin dezakete 5 euroko pultsera eskuratuz.



Antolatzaileek mendi lasterketaren itxura zuen ibilbide polita egokitu zuten, iaz.

Super H elkartearen jarduna geroz eta ezagunagoa den arren, gogoan izan behar da Urnietako elkarteak lortzen duen diru guztia minbizia duten haurren ikerkuntzara bideratzen duela.

Eguraldiak lagunduz gero, festak ospakizun ederra izateko osagai guztiak ditu.



Iazko festara Porrotx hurbildu zen.

Udalak inbertsioen aukerak jendaurrean aurkeztuko ditu

Udalak datozen hilabete eta urteetan garatzeko hamaika inbertsio estrategiko landu ditu, azken hilabeteotako parte hartze prozesuaren ondorioz. Proposamen modura herritarrei aurkeztu zaizkionak hauexek dira: Kiroldegiaren eraberritzea, Idiazabal kalearen antolamendua, igerileku estalia, Etenetako igogailua, Mugikortasuna Arantzubi kalean, estalpea Plazido Muxikan, etxebizitza sozialak, San Juan plazaren eraberritzea, Xoxokako plazaren eraberritzea, aparkalekuak eta Oztarango pasagunea.

Hamaika egitasmo horiek xehetasunez aurkeztuko dituzte datorren astean, jendaurreko bileretan. Udalerriaren etorkizunean eragingo duten neurriez hitz egiteko bilerak irekiak dira.

BILERA SORTA

Denda Berri:

19:30. Elkartea.

Apirilak 18, astelehena.

Xoxoka:

20:00. Auzo elkartea.

Apirilak 19, asteartea.

Lekai:

19:00. Areto nagusia.

Apirilak 20, asteazkena.

Apirilaren 21etik aurrera komunikazio kanpaina abiatuko da, bileretan egon ez direnei ere informazio guztia helarazteko helburuarekin.

Azkenik, hamaika aukera horietan artean urnietarrek aukeratzeko modua izango dute. Zehazki, urnietar bakoitzak lehentasunezko hiru inbertsio zehaztu ahal izango ditu apirilaren 25ean hasi eta maiatzaren 11 bitarte luzatuko den parte hartze prozesuan.

Eraikin zaharra botako dute etxebizitzak eraikitzeko



Eraikin zaharra botatzen hasiko direla iragarri du Udalak, eraiste lanek trafikoan eta oinezkoentzat eragozpenak sor daitezkeela adieraztearekin batera.


Hutsik geratuko den lur-sail horretan 30 etxebizitza eraikiko dituztela iragarri dute ere, horietatik 18 merkatu librean eta beste 12 bestutako etxebizitzak.

AISIALDIA ETA INGELESAREN ERABILERA UZTARTZEN DITUEN TAILERRA

Txontxongiloak egitea edota ingelesez aritzeko gogoia duen haurrak ostiral honetan Elduaien akademiaren tailerrean parte hartzeko aukera izango du, arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara. Izan ere, saio irekia antolatu dute 12 urte bitarteko haurrentzat. Antolatzaileek gonbite zehatza egin dute: "Txontxongiloak gustoko dituzu? Eta ingelese praktikatu nahi? Tailer honetan txontxongiloen ezaugarriak ezagutu eta gogokoan dituzun pertsonaiak eraiki eta bizia emango diogu".



Liburuaren eguna Urnietan apirilak 23, larunbata




Antolatzailea: Iñistorra
Babeslea: Urnietako Udala

11:00-14:00 Liburuak salgai San Juan plazan.

Datorren maiatzaren 20ko Pirritx, Porrotx eta Marimototsen "Amalur" emanaldirako sarrerak bertan salgai ipiniko dira.

19:00 "Gurea da plazerra" ipuin erotikoak Saroben, Iñistorra eta Muxu Goxo ekartearen eskutik.

3 euro. Salgai: Sarobe, Ikasmin, Kantoi.



Laguntzailea: Aiurri

Urberritzen egitasmoa

Egitasmoa Donostia-Berri eskualdean garatzen ari da (Berri), berrikuntza sozialean oinarritutako dinamika iraunkor bat sortzeko eta eskualdeetako eragileak artikulatzeko asmoz. Eskualdera etorrira, hauek dira Beterri landuko dituzten helburu zehatzak: Garapen-eredu berri bateranzko urratsak

ematea eta eskualdeko eragileen arteko elkarlanerako balizko aukerak aztertzea.

Urnietako bileran dagoeneko martxan dauden proiektuak ezagutu eta elkarlanerako proiektu berriak identifikatuko dira. Bilera irekiak dira. 10:30-13:00. Lekaio. Apirilak 20, asteazkena.

Lana bilatzen laguntzeko tailer eraginkorrak

Andoaingo La Salle Berropeko enplegu zentroak lana bilatzera zuzendutako doako tailer desberdinak eskainiko ditu apirila eta maiatzaren zehar. Tailerrak zehatzak dira, eta lana bilatzen ari direnentzat garrantzia handikoak: Curriculum on bat nola idatzi, lanerako hitzorduak nola prestatu, lana non bilatu, etab.

Doakoak izango dira tailer horiek, Lanbide zerbitzuan izena emanda daudenentzat. Ordutegia kasu guztietan berdina izango da. Goizeko 09:00etan hasiko dira, eguerdiko 12:00ak arte.

Andoaingo eskualdeko enplegu gune bakarra da, beraz, urnietarrentzat ere interes handikoa da. Mamen Rasero da bertako teknikaria (943 590 557).

Andoaingo eskualdeko enplegu gune bakarra denez, urnietarrentzat ere interes handikoa da

TAILERRAK:

Apirilak 19, 27, 28,

Maiatzak 17:

Lanerako elkarriketa prestatzeko saioak.

Maiatzak 10:

Lana non bilatu, lan saioa.

Maiatzak 5, 12:

Lanbide.net gunean nabigatzen ikastea.

Maiatzak 25:

Emakumezko langileen eskubideei buruzko tailerra: "Diskriminatzaileak izan daitezkeen eguneroko egoerez ohartaraztea: lan-elkarriketako galdera pertsonalak, baimenak ukatzea, e.a".

Gazteen artean kazetaritza sustatzeko lehiaketa

Udalak gazteen artean kazetaritza sustatzeko deialdi berria luzatu du, zehazki, Erreportari Gaztea XIX. Sariaketa. Lehiaketa honetan parte har dezakete Andoaingo edota Urnietan bizi diren edo ikasten duten neska-mutilek, 1.998 eta 2.001 urteen bitartean (biak barne) jaiotakoak. Erreportajearen gaia zabala da, herri horietako gertakari bati edo batzuei buruzkoa izan beharko du, edozein garrantziko eta edozein alorretakoa.

Erreportajeek gutxienez ere DIN A-4 neurriko 3 orrialde edo 6.000 karaktere izango dituzte, eta ordenagailuz idatzita aurkeztuko dira. Lan bakoitzaren kopia bat paperean eta beste bat euskarri informatikoan (pdf formatuan) entregatu beharko da. Lanekin batera gutunazal itxi bat aurkeztu beharko da. Gutunazalaren ba-

Lehiaketan 15 eta 18 urte bitarteko Andoaingo eta Urnietako gazteek parte har dezakete

rruan lanaren egileen-egileen izen-deiturak, helbidea, telefonoa, posta elektronikoa eta adina jarri beharko dira. Gutun-azalaren kanpoko aldean, berriz, lanaren izenburua. Lanetan bertan ez da egilearen daturik jarri behar.

Sariak hiru dira, eta ez nolana hikoak. Lehendabizikoa 360 euro eta Xabier Laka eskultoreak egindako oroigarria; bigarrenari 180 euro, eta hirugarrenari, berriz, 90 euro. Lanak maiatzaren 23a baino lehen aurkeztu behar dira Andoaingo Udaletxean, Ataria herritarren arreta zerbitzuan, goizeko 8:00etatik arratsaldeko 14:30era.

Errenta aitortpena euskaraz aurkezteko kanpaina

Postontzia Eskualdeko udalak

"BATU ETA GEHITU ETEKINA"

Errenta aitortpena egiteak etekina ekartzen dio gure gizarte-ari, diru horrekin hainbat zerbitzu bermatzen ditugulako, baina, gainera euskaraz egiten badugu, beste etekina ere gehitzen diogu: gure hizkuntza eta hizkuntza hori erabiltzen dutenak indartzen ditugu.

Buruntzaldeko udaletako Euskara Zerbitzuek urteak daramatate data hauen inguruan hiritarrak animatzen errenta aitortpena euskaraz egin dezaten, eta datuek erakusten digute poliki-poliki bada ere, errenta aitortpena euskaraz egiten dutenen kopurua gora doala gure eskualdean.

Aurreko bi urteotan bezalaxe, herritarrak animatzeko, Buruntzaldeko Facebook-en lehiaketa bat jarriko dute abian, eta mezua elkarbanatzen dutenen artean bi laguntzako sagardotegi menua



zozketatuko dute maiatzaren 17an.

NOLA EGIN ERRENTA AITORTPEN EUSKARAZ?

Errenta aitortpena egiteko hiru modu daude eta guztietan erabil daiteke euskara:

1. Mekanizatua

Apirilaren 15etik ekainaren 6ra har dezakezu hitzordua, hartzeko garaian adieraz ezazu Ogasunarekin harremanak euskaraz izan nahi dituzula.

Ogasunarekin aurrez aurreko harremanak, nahiz eta telefono edo internet bidezkoak euskaraz izan ditzakezu, horrela eskatzen baduzu. Ogasu-

nak sinatzeko ematen dizun orria ere euskaraz jaso dezakezu.

2. Autolikidazio proposamena

Ekainaren 25era bitarte zabaldu jasotako proposamena onartzeko epea. Jasotako proposamena onartzerakoan, euskaraz egin nahi duzula esan, eta aurrerantzean Ogasunak agiriak euskaraz bidaliko dizkizu.

3. Internet bidezkoa

Aitortpenak aurkezteko epea apirilaren 18tik ekainaren 25era da. Internet bidez eginez gero, errenta programaren euskarazko bertsioa jaitsi internetetik eta hobetsitako hizkuntza atalean euskara aukeratu.

Aholkularitza baten bidez egiten baduzu, adieraziozu aitortpena euskaraz egin nahi duzula. Informazio gehiago behar izanez gero buruntzaldea.eus webgunean eta eskualdeko Euskara Zerbitzuetan eskuragarri.

Maiatzaren 29a, erraustegiari ezezkoa adierazteko hitzordua

Bost mila lagun eskutik helduta, osasunaren alde

Errausketaren kontrako mugimenduak datorren maiatzaren 29rako giza-katea antolatu du, Donostiako Onkologikotik abiatu eta Aldundian amaituko dena. Horrela argudiatu zuten ekimenaren arrazoia, prentsa agerraldian: "Zergatik hasi Onkologikoan? Ez dugulako han bukatu nahi. Zergatik bukatu Foru Aldundian? Bertan has daitezkeelako behar baino pertsona gehiago Onkologikoan bukatzera eraman ditzakeen bidea". Bi tokiren artean dagoen distantzia bost kilometrokoa dela eta, metro bakoitzeko pertsona bana nahi dute. Gauzak horrela, antolatzaileek egun horretan 5.000 lagun biltzeko erronkari heldu diote.

Erronka handia dela aitortu dute, "horregatik herritarrei ekimen honetan parte hartzeko deia egiten diegu. Gaia serioa da eta ekimena ere serioa izango da. Baina ez dugu horregatik kolore ilunekin marrotuko, osasunaren aldeko eki-



Deitzaileek aurkezpene egin zuten aurreko asteburuan, Aldundiaren aurrean.

Antolatzaileek egun horretan 5.000 lagun biltzeko erronkari heldu diote

mena izango delako, eta osasuna, azken batean, alaitasuna ere badelako. Horregatik lanean ari gara maiatzaren 29an musika, emozioak eta sorpresak ere falta ez daitezen".

Hitzordura agertzeko arrazoi nahiko badagoela diote, bereziki osasunari kaltea eragiten diotenak, "datu zientifiko sendoak daude hondakinak erretze minbizi-kasuen eta hilortasunaren handitzearekin lotzeko, baita beste hainbat gaitxotasun ugaltzearekin ere, erraustegi batetik hamar kilometroko inguruan bizi den populazioan".

TOKIKO ERAKUNDEEN LEGE BERRIA

Udal lege berria

Negoiazioen ostean eta urte luzeko saiakeren ostean, apirilaren 7an Gasteizko legebiltzarrek "Euskadiko tokiko erakundeen legea" onartu zuen, EAJ eta EH Bildu alderdi abertzaleen arteko akordioari es-

ker. Mikel Pagola Urnietako alkateari eta Ana Carrere Andoaingo alkateari onartu berri den legeari buruzko iritzi bana eskatu die Aiuurriko erredakzio batzordeak.



BADUGU UDAL LEGEA

Ana Carrere # Andoaingo alkatea

Azkenean, berandu... askok esango dute hori. Eta ez zaie arrazoirik falta-ko, 36 urteetan Udal legerik gabe egon garelako. Hala ere, oraingoan Udal legea badugunez, Andoaingo alkate bezala legea ahalbidetzea posible egin dutenak zoriondu nahi ditut.

Udal legea garrantzitsua da, herritarrengandik gertuen dauden erakundeak Udalak direlako, garrantzitsuenak esango nuke nik. Hau horrela izanda, udal politika hobetuko lukeen legea behar genuen.

Asko dira nabarmendu nahiko nituzkeen puntuak: batez ere poztu nau jakiteak herri txikiak indarturik atera direla lege honekin; eta ez da gauza gutxi, akordio handietan normalean herri txikiak bazterrean uzten baitituzte. Hala ere, Andoaingo alkate naizenez, gure herriari ekarriko dizkion onurak ekarri nahi ditut hona.

Gizarte Larrialdietarako Laguntzen atal osoa epe laburrean antolatuta eta arautzeko erabakia hartu da. Bitarte horretan, Andoain bezalako herrietan, udal bakoitzari dagozkion dirulaguntzak gainditzin diren kasuetan kopuru erantsiaren bi heren Jaurlaritzak ordainduko ditu eta udalak herena. Neurri honekin, orain arte babes sozialerako neurrietan sakontzen jarraitu ahal izango dugu. Lege honekin, beraz, arlo soziala indartzen da, zalan-tzarik gabe, ezinbestekoa den puntua; gizarte larrialdietarako laguntzak herrietatik kudeatu behar direlako. Fi-

nantzazioaren zama ezin da, ordea, soilik udalen esku utzi.

Beste eremu batean, Udal musika eskolen finantziarioentzat formula bat adostu izana azpimarratu nahiko nuke. Maila instituzional bakoitzak heren bat jarriko du horrela.

Gardentasunari eta herritarren partaidetza sustatzeari baliabide konkretuak ezartzen dira: besteak beste, herri kontsulten aukera babesten da, eta honek bete-betean bat egiten du agintaldi honetan Andoainean onartu nahi dugun "Partaidetza ordenantza"rekin.

Euskal Herri osoko herrien arteko lankidetzak bultzatzeko bideak ireki dira ere; hizkuntza, kultura, ekonomia- ren sustapena eta gizarte eta lankidetzak gaitan. Euskal Herria behetik gora eraikitzeko tresna ere bada Udal legea, beraz, hainbestetan eskatu izan dugun lankidetzak honi ilusioz ekingo diogu Andoaindik ere.

Eta hori guztia euskara indartzeko. Amaierarako utzi badut ere, ez du esan nahi garrantzi gutxi gaia denik, kontrakoak baizik. Lege berria euskararekiko ahulguneak osatzera dator. Hau da, Udal legeak tokiko erakundeak aitortzen dizkie eskumenak eta aurrerantzean herrietan euskararen normalizazioa eta erabilera sustatzeko eskumen gehiago izango ditugu. Eta, bide batez, estatuko Gobernu-ordetzariak jarritako ehunka salaketak eta murrizketek indarrik gabe geldituko dira. Horrela, euskararen erabilerak babes juridiko handiagoa lortuko du lege berriarekin.

Horiexek nabarmendu nahi izan ditut oraingoan, baina badaude gehiago ere. Esan bezala, lege ona da. Herritarren eskubideak bermatzea eta kalitatezko zerbitzuak eskaintzea da alkate naizen aldetik dudak lehentasuna. Lege honek ez du dena konponduko, baina eskumen eta bitarteko gehiago ematen dizkigu, eta hori beti eskertzekoa da.



TOKI ERAKUNDEEN LEGEA

Mikel Pagola # Urnietako alkatea

30 urte luze pasa dira Euskadin Udal legea onartzeko lehen urratsak eman zirenetik.

30 urte. Saiakera ugari. Porrotak. Beharrezkoak ziren adostasunak lortzeko ezintasunak.

Baina azkenean, Eusko Legebiltzarrean, EAJ eta EH BILDU alderdiek lortutako adostasunari esker onartu berri da "Euskadiko Toki Erakundeen Legea". Ezin baitugu ahaztu udal lege honen atzetik, Euskadin ditugun erakunde desberdinen arteko harremanak arautu direla. Eusko Jaurlaritzak, Aldundiek eta Udalek osatzen dituzte hiru erakunde maila horiek eta beraien artikulazioa prozesuari amaiera ematen zaio onartu berri den legearekin.

Legea inoiz baino beharrezkoago eta premiazoagoa den une batean onartu da. Lege hori gabe, Udalak estatuko oinarritzko legedia aplikatu behar harko baigenuen. Aldiz, egungo marko juridiko-instituzionala errespetatzen duen araudi propio batekin, udalok, orain arte bere osotasunean ezin gauzatu ahal izan dugun autogobernua, autonomia eskuratuko dugu, eskumen argiekin eta finantziario egoki baten bidez.

Hori guztia, teorikoa da. Teoriak dioena. Onartutako legeak ekarriko diguna. Baina nola eragingo digu udaloi benetan hemendik aurrera "Euskadiko Toki Erakundeen Legea"?

Lehendabiziko hilabeteak ez dira

samurrak izango. Udalak akordio honen ostean izango ditugun 37 esku-duntzek, erronka bat suposatuko baitute. Eskuduntza batzuk berriak dira, Udalak orain arte ez genituenak. Horiek asetzeko, lan asko egin beharrean aurkituko gara udal kudeaketaren ardura dugunok. Gizarte larrialdietako zerbitzuei aurre egiteko diru iturriak izango omen ditugu. Finantzen Euskal Kontseiluan, hemendik aurrera udalen ordezkariak hitza eta bozka izango du. Udalak, erabakigarriagoak izango gara. Orain arte Eusko Jaurlaritzak eta Aldundiek soilik erabakitzen zuten Euskadin diruzerga bidez jasotzen zen dirutik, Madrili bere kupoa ordaindu ostean geratzen zen dirua nola banatu. Orain berriz, udalok zuzenean eragiten diguten gaitan bozkatuko dugu. Alegia, erabakia hartzea pasa gara.

Izan ere, ezin baitugu ahaztu honetan guztian Udalak gaitan herritarrengandik gertuen dauden erakundeak eta halaber, herritarrok eskatzen dizkiguten zerbitzu eta beharrei erantzuteko beharrezkoak ditugun baliabideak ahalbidetu behar zaizkigula.

Legea, bere osotasunean hartuz, ez da ziurrenik ez Eusko Alderdi Jeltzaleari, ez eta ere EH Bilduri hasiera batean lortzea gustatuko litzaiokeena, baina bi alderdien artean izandako negoziaketan ostean, lortu zitekeen akordio onena dela esan daiteke.

Hala Eusko Alderdi Jeltzaleak akordioetara iristeko borondatea duela berretsita da. Lekuko, epe labur batean, bi alderdion artean elkarrekin lortu den bigarren akordio garrantzitsua dela. Orain gutxi, gogoan dugu, Euskadiko udalen elkartearen (EUDEL) inguruan lortutako akordioa. Aurrerantzean, EH Bilduk baietza eman ostean, Euskadiko udaletan alkatetza ardura duten alderdi politiko guztietako ordezkariak izango baitira EUDELeko batzorde eragilean.

HEMEROTEKA: "UDALAK INDARTU"



MIKEL IRIZAR,
Hizkuntza Berdintasuneko zuzendaria,
Gipuzkoako Foru Aldundian.

"Berriki jakin dugu akordioa erdietsi dutela EAJk eta EH Bilduk Eudel udal elkartearen lankidetzan jarduteko. Baita udal legearen inguruan ere, nahiz akordio hau oraindik ez den osoa.

Udal legea oraingoan onartu-

ko balitz -eta bada garaia- udal eskumenen zerranda finkatuko luke, eta hauei dagokien finantzazioa lotuko. Eta eskumen horien artean badira hizkuntza politikaren esparrukoak, gaurdaino Jaurlaritzak bakarrik zituenak. Bestalde, Eudelen gaineko akordioak erraztu egin lezake lankidetzak handitzea Ueman ere, eta, horrela, udal ad-

ministrazioetan euskararen normalizazioan jauzi indartsu bat egitea.

Oso pozik hartu ditut bi albisteak. Erabat sinesten dut tokiko aktibazioan, uste dut beharrezkoa dela komunitate gertuko egituratuta egotea eta auzolanean aritzea plangintza eta egitasmo orokorrek eragina izateko. Eta euskararen tokiko

sustapenean funtsezkoa da udalen ekarpena: hautetsien aginpidea, teknikarien ezagutza eta erakundearen baliabideak. Hori guztia gizarte ekimenarekin ondo uztartuta.

Gauza ona da udalak indartzea, lagungarria izan daiteke oso euskaltzaleak aktibatzeke. Euskararen aldeko tokiko lane-tan garai onak datoz".

Ehun urte bete ditu Magdalena Zubillagak



Argazkian, Andoaingo Udaleko Ana Sanz teknikariarekin eta Ana Carrere alkatearekin batera, Zubillagaren familiako zenbait kide ageri da; Mari Karmen Sarailegi, Maria Luisa Olarra, Maria Angeles Errondosoro eta Jose Mari Goenaga.

Magdalena Zubillaga andoaindarrak ehun urte bete zituen joan den asteartean, apirilaren 12an. Familiako kideez inguratuta ospatu zuen eguna, Juan Batista Erro kaleko etxebizitzan.

Ana Carrere alkateak eta Ana Sanz gizarte zerbitzueta-ko udal teknikariak bisita egin zioten, Andoaingo Uda-

laren izenean zorionak emateko. Magdalena egundoko osasunarekin heldu da ehun urtetara, eta oraindik hitz jarri ederrari eusten dio. Nafar hizkera ez du galdu, Goizuetan jaio eta gaztaroa bertan egin baitzuen. 31 urterekin etorri zen Andoainera bizitzera, eta Intex lantegian urte mordo egin zuen.

Omenaldi ekitaldia Sorabillan



Apirilaren 24an, igandearekin, Mikel Goenagaren adiskideek haren aldeko omenaldi ekitaldia antolatuko dute. Sorabillan izango da, goizeko 11:30etik aurrera.

Manifestaziorako deialdia



Xabier Lekuona, Eujen Villasante, Arkaitz Labega, Ander Armendariz, Peio Alvarez, Joxean Barandiaran, Fermin eta Txanka Arruti Andoaingo preso ohiak.

Andoaingo preso ohiak euskal gizarte osoari Bilboko manifestazioan parte hartzeko dei egiten dute: "Dei egiten dugu apirilaren 17ko manifestazioan parte hartzera eta sakabanaketaren aurka, presoan etxeratzearen alde lanean ari diren edota aldekotasuna adierazi duten eragile sozial eta instituzional guztiei elkarlanerako gonbita luzatzen diegu", adierazi zuten. EPPK euskal preso politikoen kolektiboari babesa adierazi zioten, ekitaldi berean. "Guk hauxe diogu, ozen: beraiekin bat

egiten dugula jasaten duten bortizkeria sistematiakoari aurre egiteko borrokaldi eta ahalegin guztietan, baita legedi barneko baliabideak erabiltzeko erabaki eta urratsak ematean ere".

BUS ZERBITZUA ANDOAINDIK
Andoaindik autobusa antolatuko dute eta izena emateko aukera dago Xaxin eta Irunberrin. Bilboko manifestazioa eguerdiko 12:00etan abiatuko da La Casillatik. Andoaindarrak goizeko 10:00etan autobusean irten-diogo, ozen: beraiekin bat

Irabazik III. Errepublika aldarrikatzea proposatu zuen

Errepublika hizpide apirileko batzaraldian



Apirilaren 7ko plenoa, 17 Udal ordezkariekin. Ezker eskuin Irabazi, EAJ-PNV, EH Bildu, PSE-EE eta Ganemos alderdietako kideak.

Jorge Mourinho Irabaziko zinegotziak Errepublikaren aldeko mozioa aurkeztu zuen, bost puntuz osatua. Hona proposamenaren edukia, puntuz puntu:

1. 1936ko altxamendua gaitzestea.
2. III. Errepublikaren aldeko udalen sarearekin bat egitea eta Errepublikaren aldeko prozesu eraikitzailea bultzatzea.
3. Egungo estatua agortua dagoela adieraztea eta estatu eredua erabakitzeko erreferenduma eskatzea.
4. Mozioan agertzen diren balioren eta horien alde bizi eman zuten herritarren aitormen gisa, apirilean udal-tertxeko balkoitik bandera errepublikanoa zintzilikatzea.
5. Mozioaren erabakia erakunde publiko eta komunikabideei helaraztea.

Ganemoseko Olga Hernandezek bat egin zuen puntu guztiekin, "Franco hil zenetik urte asko pasa dira eta oraindik justizia egiteko dago. Bada he-

rriari zein sistema politikoa nahi duen galdetzeko garaia".

EH Bilduren izenean, Jon Zuletak adierazi zuen bere taldea ez zegoela mozioaren ideia askorekin ados, III. Errepublika espainiarra ez baizik eta Euskal Errepublika nahi duelako. Baiezkoa iragarri zuen mozioaren lehenengo, laugarren eta bosgarren puntuari. Banderari zegokionez, ondo ikusten zuten apirilaren 14an zintzilikatzea, herrian frankismoak zapaldu zituen herritar askoren sentsibilitatea ordezkatzeko duelako.

EAJ-PNVko Marijose Izagirrek adierazi zuen bere alderdiak bost puntuen aurka bozkatzeko zuela, ez zegoelako ados bere helburuekin: "Ez gara monarkia zaleak, ez duelako gure herritarren aitortza egiten. Urte asko daramatzagu altxamendu militarra salatzen, urte asko Euskal Errepublika lehenetsi nahian, eta ez dugu inoren leziorik onartuko. Balkoian zintzilikatu nahi dena espainiarra da, Espainiako Errepublikar bandera, baina inposatutakoa. Beraz bi bandera espainiar zintzilikatzea eskatzen da, bata le-

gez behartuta, eta bestea tamalez, udabaltza honek erabakitakoa". Izagirrek, bere azalpenetan, Andoaingo udalak 1931ko apirilean onartutako mozioaren lehen hiru puntuak gogorarazi zituen. Hauexek: Espainiar Errepublika aitortzea, herritarren adierazpen legitimoa izan den heinean; Espainiar Errepublikari lotutako Euskal Gobernu Errepublikanoa eraikitzeko nahia adieraztea; eta, Erakunde publikoei eskatzea autodeterminazio printzipioa errespetatzea.

PSE-EEko Maider Lainezek baieztatu zuen bere alderdiak frankismoa gaitzetsiko zuela, baina ez zitzaion iruditzen egungo estatu sistema agortua dagoenik, eta beraz, ezezkoa emango ziela bigarrenengo eta hirugarrenengo puntuei. Bandera zintzilikatzeari zegokionez ere, ezezko botoa iragarri zuen Euskadiko Epaitegi Gorenak legez kanpokoa dela adierazia duelako.

Azkenean, soilik lehen eta bosgarren puntuak onartu ziren, EAJ-PNV ez beste guztien aldeko botoekin.

ERREKA JAITSIERA PRESTATZEKO BILERA URIGAINEN

Datorren asteartean, apirilak 19, Eguzki taldeak eta Santakruz jai batzordeak erreka jaitsieraren edizio berria antolatuko informazio bilera deitu dute. Apirileko azken larunbatean izango da eta dagoeneko erreka jaitsierarako ordutegiak finkatuta dituzte:

Apirilak 30, larunbata
16:00 Bilkura Bekoplazan.
16:15 Etxarrin bilkura.
16:45 Erreka jaitsieraren hasiera.
17:30 Herrigunera iritsiera.



EUSKAL ERREPUBLIKAREN ALDEKO MOZIOA ONARTU ZUTEN ANDOAINEN 1931KO APIRILAREN 17AN

1931ko apirila Andoaingo Udal politikagintzan

1931eko apirila irismen handiko hilabetea gertatu zen Espainiar estatuan. Historikotzat jo daitezkeen gertakizun ugari gertatu ziren oso denbora gutxian. Andoainen, esaterako, 1931ko apirilaren 12an

Udal hauteskundeak deitu eta jeltzaleak nagusitu ziren. Handik bi egunera Errepublika aldarrikatu zen eta apirilaren 15ean lehen aldiz ikurriña jarri zuten udaletxeko balkoian.

Primo de Rivera militarrek estatu kolpea burutu eta diktadura ezarri zuen 1923-1930 urteen artean; honek 1930eko urtarrilean boterea utzi ostean, **Alfonso XIII** monarkak **Berenguer** izendatu zuen behin behineko gobernu buru.

1930ko abuztuan, sistema politiko errepublikanoaren alde zeuden alderdi politikoek "Donostiako hitzarmena" sinatu zuten, Donostian bertan. Hitzarmenean adierazi zen larria zela Espainiako estatuaren egoera, eta erabateko aldaketa eskatzen zuela; monarkia eta diktadura baino, nahitaez demokrazia ekarriko zuen Errepublika ezarri behar zela.

Egiazki, historikoki errotutako arazoak zituen Espainiako estatuak: jauntxokeria, ustelkeria, injustizia soziala, pobrezia, Elizaren eta ejertzitoaren botere ahalguztiduna, nazionalismo historikoen aldarrikapenak...

APIRILAREN 12AN UDAL HAUTESKUNDEAK

Gizartean zabaltzen joan ziren Donostiako hitzarmeneko printzipioak, eta behin behineko gobernuak udal hauteskundeak antolatu zituen apirilaren 12an. Errepublikano-sozialisten hautagaiek irten ziren garaile hiriburu gehienetan, eta hauteskundeak monarkiaren inguruko plebiszitotzat hartu ziren. Apirilaren 14an Errepublika aldarrikatu zen udaletxetan. Gauzak abiadura azkarrean aldatzen ari ziren eta Alfonso XIII monarkak ihes egin zuen Errepublikaren sistema politikoa ofizialki ezarri zenean. Gizarteko zati handi batean benetako itxaropena eragin zuen Errepublikaren proklamazioak.

Andoainen, 3 hautagaitza aurkeztu ziren hauteskundeetara:

- Jeltzaleak (309 boto).
- Karlistak (228 boto).
- Ezkerreko errepublikarrak (61 boto).



Andoaingo udaleko zenbait zinegotzi abertzale, idazkariarekin, aguazilarekin eta eta zenbait jarraitzaileekin, kontsejupean 1936ko otsailean. (1) Ramon Aldalur, (2) Nemesio Fernandez, aguazila; (3) Rikardo Gantzarain; (4) Ebaristo Barriola, zinegotzia; (5) Luziano Pastor, zinegotzia; (6) Pablo Egibar, alkatea; (7) Karmelo Lasarte; (8) Inazio Etkezortu, idazkaria; (9) Pako Alberdi; (10) Antonio Lopez Gereño, zinegotzia; (11) Joxe Mari Mendikute; eta (12) Primo Irulegi, zinegotzia.

Apirilaren 14an Errepublika aldarrikatu zen udaletxetan. Alfonso XIII monarkak estatutik ihes egin zuen eta Errepublikaren sistema politikoa ezarri zen ofizialki

HAMAIKA ZINEGOTZI

Zazpi jeltzaleak ziren: **Pablo Egibar**, **Nemesio Fernandez**, **Primo Irulegi**, **Pedro Ugalde**, **Antonio Lopez de Gereño** eta **Ebaristo Barriola**.

Lau karlista ziren: **Lazaro Agirre**, **Frantzisko Ieregi**, **Domingo Soroa** eta **Joakin Arratibel**.

Apirilaren 14an bandera errepublikanoa jarri zuten udaletxeko balkoian, gainerako udaletxetan bezalatsu. Apirilaren 15ean gehiengo osatzen zuten zinegotzi abertzaleek ikurriña zintzilikatu zuten ere, Andoaingo historian lehen aldiz izanik.

Apirilaren 17an udalbatzaraldia egin zuten, ofizialki

Udal korporazio berria osatzeko; Pablo Egibar alkate izendatu zen. Hurrengo egunean bigarren batzaraldia egin zen. Udallerriaren funtzionamenduari zerikusia zuten hainbat gai jorratu ostean, azkeneko utzi zen Euskal Errepublikaren aldeko mozioaren azterketa.

EUSKAL ERREPUBLIKAREN ALDEKO MOZIOA

Sei puntuko mozioa aho batez onartu zuten:

1. Espainiako Errepublikaren onartzea, apirilaren 12an herritarren borondatea adierazi denez.
2. Espainiako Errepublika Federalaren baitan Euskal Gobernu Errepublikanoa erakitzeke udal honen borondatea adieraztea.
3. Eraiki diren erakundeei autodeterminazioaren printzipioa errespetatu dezaten eskatzea.
4. Mundaka, Getxo, Bermeo eta Elorrioko udalek plaza-ratu duten manifesturakiko atximendua adieraztea.

5. Euskal udal guztiak ordezkatu dituen Batzorde Kudeatzaile bat izenda dadin bultzatzea, aurretik adierazitako puntuak lortzeko.

6. Errepublikako presidente Alcalari, Maciari (Ezquerria Republicanako buruzagia) eta aipatu diren Bizkaiko udalei telegramak bidaltzea, ongietorria eman eta kolaborazioa eskaintzeko.

Gogoratu behar da Bizkaiko lau udalerririk horietako alkate abertzaleek, bezperan, apirilaren 16an, Bizkaiko udalen batzarrera deitu zutela Gernikan. Deialdiak legitimitate demo-

Apirilaren 14an bandera errepublikanoa jarri zuten udaletxeko balkoian. Apirilaren 15ean zinegotzi abertzaleek ikurriña zintzilikatu zuten ere, Andoaingo historian lehen aldiz izanik

kratikoa nahikoa zuela iruditzen zitzaizkien, garai hartan udaletxeak erakunde demokratiko bakarrak zirela kontutan hartuta. Bizkaiko alkateak gehienak EAJren eskuetara geratu ziren. Deialdiaren ekimenari dagokionez, jeltzaleek lidergoa hartu zuten hasieratik, aurretik errepublikano-sozialistekin kontsentsua lortzen saiatu gabe. Gobernu errepublikanoak galarazi egin zuen bilera hori, eta ejertzitoak udal ordezkari Gernikara sartzeko galerazi zieten. Herriko sarreran bildu eta manifestu bat sinatu zuten, Euskal Herrirako autonomia bultzatzeko asmoz. Alderdi guztiek zeuden autonomiaren alde, baina Errepublikan zehar (1931-1936) soilik EAJk lehensitu zuen aldarrikapen hori. Laster EAJko alkateek "alkateen mugimendua" eratu zuten, bertan Andoaingoak ere parte hartu zuelarik.

Bost urteko egoera politiko bizi eta katramilatsua, eta, 1916ko uztaileko kolpe militarrek egoera sozio-politiko hankaz gora jarri ostean, Madrildiko kongresuak 1936ko urriaren Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko autonomia estatutu onartu zuen.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

“ANDOAIN AUZOZ AUZO” PARTE HARTZE EKIMENA GOIBURUN ABIATU DA

Auzotarren ahotsa entzuteko bilera sorta

Iazko urrian egin bezala, 2016ko udaberrian Andoaingo Udalak zazpi bilera deitu ditu beste hainbeste auzuneetan. Helburu bikoitzarekin: Batetik, Udalaren jardueraren berri ematea eta, bestetik, auzotarren

proposamenak eta kezak zuzen-zuzenean jasotzea. Goiburun abiatu zen parte hartze prozesua, eta bertan auzotarrek trafikoarekiko edota etxebizitza alternatiba faltarekiko kezak plazaratu zituzten.

Andoaingo Udalak azken urteotan parte hartzeari garrantzia eman dio, eta dagoe-neko hirugarren urtea da parte hartze prozesuak antolatzen dituela. Aurtengoa asteartean abiatu zen Goiburun auzoan, eta datozen egunetan sei bilera gehiago egingo dituzte hamar egunetan. Udalaren aldetik zer kontatua badagoelako, eta bereziki, auzotarrek zerbait esaterik izanez gero entzuteko prest daudelako. Goiburuarek aukera ondo baliatu zuten, bilerak iraun zuen denbora osoaren bi heren auzotarren kezak entzun eta argitzera bideratu baitziren.

Agintaldi berria martxan jarri zela urtea beteko da laster eta bi aldaketa garrantzitsu azpimarratu behar dira: egoera ekonomikoa eta politikoa. Ekonomikoki, Udalaren egoera onbidertzen ari da. Horixe diote azken urteotako aldagai ekonomikoek, eta horri buruzko bideo argigarria eskaintzen ari dira bilera horietan. Udalaren egoera ekonomikoa estua da, sarreraren eta gastuen artean tarte txikia dagoelako. Azken urteotan, ordea, gastuari eutsi zaio eta irabazi garbiak lortzen ari dira. Inbertsioei ekiteko, ezinbestekoa da egoera onbidertzea.

Egoera ekonomikoa bezain garrantzitsua egoera politikoa da. Lau urtez udal aurrekonturik adostu ezinik, 2016koan EH Bildu eta EAJ-PNV alderdi abertzaleek Udal aurrekontua negoziatu eta adostu dute. Horren bitartez udal azpiegitura sarea berritzeko edota baserri bideak konpontzeko partidak zehaztu dira.

Goiburuko bilerara gobernu taldeko **Ana Carrere** alkatea, **Pedro Unanue** Zerbitzuak lansaileko zinegotzia eta **Agustin Alberro** Hirigintzako zinegotzia bertaratu ziren.

Marijo Izagirre EAJ-PNVko bozeramailea ere bileran izan zen, eta laurak ere auzotarrei argibideak emateko garaian parte hartze aktiboa izan zuten.



Goiburuko bileran auzotarrek lehendik egindako proposamenez gain, ekarpen berriak egin zituzten.


Goiburun bilerak iraun zuen denbora osoaren bi heren auzotarren kezak entzun eta argitzera bideratu ziren

AUZOTARREN ESKAERAK

“Auzoan trafikoa da arazorik handienetakoa”, adierazi zuen auzotar batek. Eta hain zuzen trafikoa lotuta dauden kezak izan ziren lehenik eta behin azaleratu zirenak. Goiburura doan bidea tarteka asko estutzen da eta parez pare aurkitzen diren ibilgailuen arteko arazoak saihesteko zein neurri hartu aztertzen ari ziren. Carrere adierazi zien Udalak trafikoari buruzko azterketa egitea gai horietan aditua den enpresa baten esku utzi dutela. Seinalizazioa ipintzea, bide bazterrekoak ala marrak errepidean ipinita, horietan bileran auzotarrek aipatu zituztenak.

Oinezkoek errepide ertzean auzoko joan-etorrian izan dezaketaren arriskua aipagai izan zen ere.

Hilabete batzuk lehenago Goiburuko plaza berritzeko auzotarrek eginiko proposamenari erantzuna eman zien alkateak. Berehalakoan ez da izango, eta datozen urteetan plaza berritzeko egitasmoari



Udala irudiz, bideoz eta azalpenen bitartez jardueren berri ematen ari da.

eusteko konpromisoa hartu zuen.

Frontoitik Txertotara doan bidea konpontzea lehentasunezko lana dela adierazi zieten bertaratu zirenei. Aurten, beraz, bide zati hori konpontzeari ekingo diote.

Frontoiari lotuta, errepidetik hain gertu egonik, pilota irteetan arriskua sor daitekeela eta, auzotarrek baranda jartzeari proposatu zuten. Hartara, pilotaren bila doan errepidean ibilgailurik ba ote datorren ikusteko denbora izango du.

Auzoaren agiztapenari buruz, Udalak plazan farolak jartzeko asmoa azaldu zuten.

Bileraren amaiera aldera, Carrere landa eremuan baserrien izenak agertzen diren seinalizazio panelak jartzeko ira-

garpenera egin zuen eta ideia hori bileran ziren gehienek pozez hartu zuten.

ETXEBIZITZAK EGITEKO AUKERA LANDA EREMUAN

Auzoko belaunaldi berrien kezka nagusia horixe da, etxebizitza alternatiba eza. Egungo araudi eta legediaren arabera, baserri eremuetan etxebizitza eraikitzea ezinezkoa da. Gauzak horrela, baserrietan aiton-amonak edota aita-amak gertatzen ari dira.

Goiburuko bilerara hurbildu ziren auzotarrek arazo horri irtenbidea bilatzeko aukerak aztertzen dabiltzala adierazi zuten. Eredua Leaburu-Txarman prestatzen ari diren hiri antolamendurako plan berria izan zitekeela aipatu zuten.

BILERA SORTA

Auzoz auzo

Apirilak 18-21

■ Buruntza, Leizotz

Apirilak 18, astelehena
18:30. Udaletxea, pleno aretoa.

■ Karrika, Etxeberrieta

Apirilak 19, asteartea
18:30. Karrika, Karrika elkarte.

■ Goiko eremua, La Salle, Plazaola

Apirilak 20, asteazkena
18:30. Ur gain, areto nagusia.

■ Sorabilla, Bordaberri

Apirilak 21, osteguna
18:30. Sorabilla, auzo elkarte.

INBERTSIOAK

Erronka nagusiak

■ Ur hoditeria

1.300.000 euroko inbertsioa.
Lehentasunezkoak izango dira Kaletxiki eta Kale Nagusia.

■ Argiteria

1.033.377 euroko inbertsioa.
Interesik gabeko maileguaren bitartez finantzatu da.

■ Hondakinak

90.000 euroko inbertsioa.
Bosgarren edukiontzia herrigune osora zabalduko da, ziurrenik uda hasieran.

■ Kirol instalakuntzak

550.000 euroko inbertsioa.
Allurralde kiroldegiko igerilekuaren sakonera txikituko da, ura aurrezteko.
Arrate pilotalekuan gasa sartu eta sarbidea errazteko arrapala ipiniko dute.

■ Kaleko irisgarritasuna

60.000 euroko inbertsioa.

■ Makaldegia

125.000 euroko inbertsioa.
Gune estalia ipiniko dute, baita WC zerbitzua ere.

■ Jokin Larreta

400.000 euroko inbertsioa.
Pareta konponduko dute.


■ Ama Kandida

405.000 euroko inbertsioa.
Etorbidea berrituko dute.

■ Herri bideak

200.000 euroko inbertsioa.

HITZ-GEZIDUNAK

	Hegatsa	Sobera	Noka, nion
	Kopeta	Landare mota	Pl., suari dariona
Gasteizko herrixka			
Bat-..., bapatean			
Euskal dantza	Uxatu, aienatu	Nafarroako herria	
Onddo bizkarroia	Pl., antzerki mota	Gaixoa	
			Nitrogenoa
			Trebea, abila
* IRUDIKO IBAIA		Jardun	
Ukapen		Ote ar	Toka, zaizu
		Joan den urtea	
		Eguzki	
Emakume, andre			
Filmatzeko aretoak			
			Interjekzioa
			Oxigenoa
Arrainen espetxeak			

HITZ GURUTZATUAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									

EZKER ESKUIN: 1.- Norbaiti buruz, bere ezkonlagunaren anaia, edo bere ahizparen ezkonlaguna. 2.- Oxigenoaren ikurra. Setati. 3.- Bih, bokalik gabe. Botilen estalkia. 4.- Edari alkoholdun. Une, mementu. 5.- Trebe, iaio. ... edo zart, erabaki! 6.- Anaiak. Areagotzeko partikula. 7.- Pluralean, garraio mota. Kanpo. 8.- Belardiak. Huts. 9.- Eremutarra.

GOTIK BEHERA: 1.- Kobratzea. 2.- Bokala. Onen. 3.- Ingelese, da. Maila. 4.- Internet luzapena. Egitekoak, beharrak. 5.- Arlo, sail. Itsas hegazi. 6.- Etxe eta jauregietan, hormen, pareten eta lurren estalgarri edo apaingarri ipintzen den oihal landu. Errepikatuz, barrearen onomatopeia. 7.- Ametsa. Suari dario. 8.- Asiakoa. Tona. 9.- Lau musika tresna edo ahotsetarako musika lana.

HIEROGLIFIKOA



Nork idatzi zuen liburu hori?

ERANTZUNAK

EZKER ESKUIN: 1. Koinatuak. 2. O. Setatsu. 3. Bn. Tapota. 4. Ron. Liper. 5. Abil. Zilt. 6. Nebak. Are. 7. Trenak. At. 8. Zelaiak. 0. 9. Anakorela.

GOTIK BEHERA: 1. Kobratza. 2. O. Hoberen. 3. Is. Nibela. 4. Net. Lanak. 5. Aial. Kario. 6. Tapiz. Kar. 7. Utopia. Ke. 8. Asiarra. 1. 9. Kuartetoa.

Michel Endek

N	I	O	A	N					
S	K	E	A	N					
H	G	B	A	L	A	R	I	A	Z
B	G	B	A	L	A	R	I	A	Z
B	G	B	A	L	A	R	I	A	Z
B	G	B	A	L	A	R	I	A	Z
B	G	B	A	L	A	R	I	A	Z
B	G	B	A	L	A	R	I	A	Z
B	G	B	A	L	A	R	I	A	Z
B	G	B	A	L	A	R	I	A	Z



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

Udaberriaren ingurukoak

“Garai hartan autodeterminazio eskubidea defendatzen genuenok espanolistak ginen, ez omenginen euskaldunak”

Natura, etengabeko ibilbidean, Udaberri iritsi da; Neguko biluztasunetik eta ilunpetik atera ondoren, lorez eta argitasunez apaindu du bere irudia. Natura, berez, orekatua da, eta aldian aldiko bixigarriak eskaintzen dizkigu. Neguko isiltasuna eta iluntasuna Udako argia eta zarata bezain onuragarriak dira gizakiontzat; eta elurra eguzkia bezain beharrezkoa Naturak bizirik jarrai dezan. Zoritxarrez Naturaren berezko oreka hori gizakiok puskatu ohi dugu, baina berak bere horretan jarraitzen du.

Naturaren oreka hori, ordea, ez da bizi dugun gizartean nabaritzen. Gaur, gezurra dirudien arren, hainbat injustizia bizi dugu: hor ditugu gerraren ondorengo hainbat eta hainbat errefuxiatuen norabide gabeko ihesaldiak, deportazioak. Eta hain urrutira joan gabe, gurean ere badira injustizia franko, ekonomikoak zein politikoak, genero zapalkuntzak, gure kaleetan egunero populazioaren manifestazioetan islatzen diren klase guztietako injustiziak, alegia. Banan bana aipatzea ezinezkoa litzaiteke. Hor adibide gisa: Panamako papearak, PPren ustelkeria eta abar luzea.

Udaberri ondorengo zutabe honetan, halere, hauteskunde ondorengo desoreka, nahasmena eta norabide eza aipatu nahi nituzke, nahiz eta abendu ondorengo hauteskundeei buruz lehen ere idatzi dudana, hainbat bilera, itun eta abarren ondoren azkenetan baikalde. Nork ditu bere ideiak eta pentsaera, eta nik ere bai noski eta analisiak beti izanen dira nahiko subjektiboak baina pentsarazteko baliagarriak.

Abenduko hauteskunde ondorengo emaitzak poztasuna eta itxaropena sortarazi ziguten, bipartidismoa desagertu eta indar berriak eremu politikoan sartu baitziren. Horrekin batera berehala hasi ziren zurrumurruak, desioak eta kielak: nor norekin ezkonduko ote zen alegia. Hasieratik egon ziren mesfidantzak eta traizio txikiak, esan nahi baita, Kongresuko mahaia osatzerakoan, batzordeak eraikitzerakoan eta, orokorrean, antolakuntzari dagokionean. Kongresuko jesarlekuak hartzerakoan ere batak besteari hitz gogorak jaurti zizkioten. Sonatuena, noski, Pablo Iglesias, Podemoseko buruzagiak Sanchez sozialistari Felipe Gonzalez jokatibidea aurpegiratu zioena, karea zela eta, Lasa eta Zabalaren kasua, alegia. Iritziak desberdinak izan ziren. Niretzat gertakari horiek gogoratzei ongi deritza oroimena bizirik iraunarazteko. Erregearekin ere ibili ziren harat hona eta, azkenean, PSOE bere gain hartu zuen gobernu eraikitze ardua. Eta hor ibili dira agerian eta ezkutuan hauteskundeetan agindu zutena alde batera utzi eta nabarmen boterearen atzetik. Kontua da, PSOE bi aukera zituela: bata, ezker aldera, eta, bestea eskuinera. Baina hemen dator gaurko ego-

eraren arrazoia eta kausa: abenduaren 20an PSOEko batzorde federalak argi eta garbi esan zion Sanchezi: inondik ere ez Podemosekin eta nazionalistekin. Eta hala gertatu zen: PSOE eta Ciudadanos ezkondu ziren eta, jakina, nahiz eta sozialistak adarrak jartzen ibili, leku guztietara biak joaten ziren. Biek sinatu zituzten zenbait puntu, eta gaztelaz esan ohi den bezala: *“Lentejas: las comes o las dejas”*. Gurea sinatzen duzu, edo bestela, zurekin ez dugu konstatzen. Eta azken kausa, nire irudiko, batzorde federalean esandakoa edota agindutakoa: PSOEko baroiek, eta, batik batik, Andaluziakoak, atetik ibili dira ariak mugitzen Sanchez desbideratu ez dadin. Eta hor kontua. Orain erraza erruak Podemosi aurpegiratzen. Jakina, Podemosek ere ez ditu urrats guztiak ongi eman, eta ulertzekoa da; berriak dira, giza mugimenduetatik datoz eta hori dena kudeatzen ez da erraza.

Baina, niretzat, PSOEk hasieratik ezkerrean jo izan balu, besterik izanen zen. Orain ea PPrekin elkartzen diren. Lotsagarria litzateke, baina politikan dena da posible. Iloba batekin bazkari bat jokatu dut: berak baietz PSOE eta PP elkartu; nik, berriz, ezetz. Honi buruz, azken apunteko bat: nire irudiko ez litzateke aukera okerra izanen Podemos beste indar asko bezalaxe, abstenitzea; oposizioan lana egin inguruko alderdi nazionalistekin batera eta erabakitze eskubidearen inguruan erabakiak hartu. Ez dakit. Ikusi behar.

ABERRI EGUNA, 2016

Aurtengo Aberri eguna xelebrea izan da niretzat. EAJ eta Eh Bildu aho zabali utzi ditu Podemosek Aberri eguna ospatu duelako. Jakina, zergatik ez. Edo independentista izan behar al da Aberri eguna ospatzeko? Podemosi bozka eman diotenak ere euskaldunak dira, hemen bizi dira, erabakitze eskubidea defendatzen dute. Zer gehiago behar da. Andoni Ortuzarrek zioenari astakeria bat deritza: Ezkerrekoa ala aberantzalea. Ea garai bateko fantasmak berpizten diren: garai hartan autodeterminazio eskubidea defendatzen genuenok *espanolistak* ginen, ez ginen euskaldunak. Orain, Podemosek erabakitze eskubidea defendatzen duenez, ba espanolista da. Gaindituko al ditugu mamu horiek, modernizatuko al gara zertxobait, eta, gai honen inguruan, demokrata deitzen diren guztiak elkartuko ote dira? Eta Herriak erabaki dezala.



KIROL ALBISTEAK

Andoain, iraupen luzeko mendizaleen topagunea

Euskaldunak bi ibilbide antolatu zituen, Andoain irteera eta helmuga zutenak. Ibilbide luzea, 42 kilometrokoa Zizurkil, Alkiza, Ernio, Gazume, Andazarrate, Zarate eta Belkoain bezalako naturgune

gozagarrietatik igaroz. Ibilbide motza, berriz, Zizurkil, Zarate eta Belkoainen barrena. Mendizaleak goizeko zazpiretan irten ziren Andoaindik.

Luzea osatzeko gutxienez sei ordu eta erdi beharko zirela aurre ikusi zuten Euskaldunako antolatzaileek, baina jada eguerdiko 12:00etarako iritsi zen lehenengo mendizalea elkarrekin Kale Nagusian daukan egoitzara; haren atzetik beste zenbait korrikalari joan ziren iristen banaka-banaka. Antolaketa 14:00etatik aurrera agindua zeukan helmugako kontrolaren eta hamaiketakoaren irekiera, eta bizkorrenek pittin bat atean itxaron behar izan zuten.

Andoaingo ibilaldia Euskal Herriko iraupen luzeko ibilaldien XV. zirkuituan sartzen da. Hogeita bost ibilaldi dira guztira. Martxoaren 20an ekin zitzaion zirkuituari Aizkardik elkarrekin antolatuta, eta urriaren 9an amaituko da Makean (Lapurdi).

EZKUTUKO LANA

Azpimarratzekoa da iraupen luzeko ibilaldietan bolondres taldeak alor ezberdinetan egiten duen lana. Makina bat xehetasun lotu behar izaten dute, dena egoki irten dadin eta mendizaleek ondo zainduak izan daitezten. Beste eginkizunen artean, bidea markatzearena dago. Bezperan eguraldi petrala egokitu zitzaie, eta nahiko lan eduki zuten aurre egiten haize erauntsei, zintak aidean eramaten baitzituen. Errazago eduki zuten igande arratsaldeko lana, zintak jasotzea alegia; lan horretan aritu ziren, besteak beste, **Joxe Mari Iturrioz, Leire Martinez, Arantxa Garmendia, Lurdes Eskudero, eta Pili eta Arantxa Urola** ahizpak.

Ez dugu ahaztu behar ibilaldiko parte hartzaileek biziki eskertu zutela hamaiketako goxo ere. Andoain leher eginda iritsi ziren mendizaleek ederki nabaritu zuten **Mari Isabel Santa Cruz, Rosario Artolazabal** eta **Nati Ariasen** esku fina.



Nabarmentzeko datua izan zen istripurik edo min hartze larririk ez zela izan inork ibilaldi osoan.



Hirukotea Belkoain inguruetan, igande goizean.



Azpimarratzekoa da iraupen luzeko ibilaldietan bolondres taldeak egiten duen lana.



Hamaiketako biziki eskertu zuten parte hartzaileek.



Mendizaleak adiskide handiak egin ohi ditu.



Parte hartzaileak, proba amaituta, ibilbidearen inguruko xehetasunak azaltzen aritu ziren.



KIROL ALBISTEAK

Andoaingo txirrindularitza irudi bidezko liburuan



Javier Zatarain eskuartean argitaratu dituen argazki liburuekin batera. Ez da horretara mugatuko, egitasmo berriak ditu.

Argazki zaharren hirugarren liburua kaleratu du Javier Zatarain argazkilariak. 243 argazki bildu ditu.

Zatarainek etxean milaka eta milaka argazki dauzka hogeita hamar urte atzera egindakoak, eta hurrengo urteetan gaika kaleratzen jarraitzeko asmoa dauka. Santakruzak, Sanjuanak, Euskalduna futbol taldea eta herriko pertsonaiak jorratuak ditu, hurrenez hurren.

Kaleberriko Jauregi harategian dago salgai bere azken liburua, 16 eurotan. Bere hasierako filosofiarik eusten dio Zatarainek: irabazi asmorik ez, gastuak kitatu besterik ez. "Zaletasunagatik egiten dut; liburu baikoitzari eskaintzen dizkiodan orduak kobratzen hasiko baintz, aberastu nintzen honezkerok!".

Argazkilari gisa, El Diario Vasco egunkariako kronista izan zen Narcue kazetariarentzat egin zuen lan 80ko hamarkadan; egundoko artxiboa osatu zuen orduan, eta izugarriko pena ematen dio material guzti hori kaxoi batean alfer-alferrik ikusteak. "Zertarako gordeta eduki? Argazkiak ikusteko dirra, jendea goxamena eragite-

ko daude; oroitzapenak pizteko zaharrak baldin badira".

Gaiez gai, argazkirik hobentxoak edo ikusgarrienak aukeratu eta liburu liburu argitaratzeko asmoa hartu zuen aspaldi, eta horri eusten dio. Egunen batean, bere artxibategi mardula Andoaingo Udal artxibategian doaintzan uzteko asmoa dauka.

TXIRRINDULARITZA

Andoain, txirrindularitza eta bizikleta zaleak 80ko hamarkadan, hiru gai horiek batean bildu ditu: Leizaur zikloturisten elkarte, Andoaingo Txirrindulari eskola, Ontza elkarte, Euskal Herriko Itzuliko etaparen bat, ziklokrosa Allurralde eta Bordaberriko eremuetan, Santakruzetako gazteen probak Kale Nagusian... Begiratu batean erraz identifikatzen diren pertsona ugari ateratzen dira argazki horietan, gertukoak nahiz urrunagokoak: Andoaingo txirrindulari gazteak, Ruiz Cabestany, Delgado, Lejarreta edo Etxabe bezalako txirrindulari profesionalak, lasterketen antolatzaileak, kolaboratzaileak, agintariak, ikusleak...

Nekaezina da, eta jada ahaztu samarra dauka ziklismoarekiko buruzko liburua; izan ere, azken asteetan Santakruz jaienguruko argazkiak darabilzkie-

Andoain, txirrindularitza eta bizikleta zaleak 80ko hamarkadan, hiru gai horiek batean bildu ditu bere azken liburuan

lako esku artean. Bere laugarren alea izango da, eta ondo bidean, aurten bertan kalera tzea espero du, bere artxibategiko argazki guztien artean politenak aukeratu eta txukundu ostean. Sanjuanei eskainitakoa, hurrengo urtean landuko du.

Bizpahiru zeregin aldi berean hartzen dituen horietakoa da Zatarain, eta, aitortu digunez, Euskalduna futbol taldeko liburu mardula ere poliki-poliki prestatzen ari da: "1925an sortu zenetik gaur arteko historia jaso nahi nuke, datu, estadistika eta argazki mordoa bilduz. Infantilak, jubenilak, erregional mailako taldea... denak denboraldiz denboraldi kontatuta. Euskaldunak izan diren jokalariek eta talde guztiek tokia izan dezaten nahi nuke, eta aipamena egiteaz gain argazkiren baten edo bestean azal daitezela. Formatuari dagokionez, orain arte plazaratutako beste liburu horien bano handiagoa izango da. Noizko egongo ote den prest? Hori ezingo nuke oraingoz zehaztu".

Igoera ziurtatzeko partida erabakiorra, Allurralden



Senior mailako taldeak garrantzia handiko partida irabazi eta gero, asteburu honetan Andoainen igoera ziurta-

tzeko partida erabakiorra jokatuko du. Lehen postuan doaz, eta garaipenak igoera ziurtatuko dio. Zorte on!

ASTEBURUKO EMAITZAK:

BKL 47-57 Ganbara SenM
Orio 41-24 Ganbara InfM

DATORREN JARDUNALDIA:

GANBARA SenM-ANDRAITZ A
19:15. Allurralde. Larunbata, 16.
GANBARA InfM-ALUMAK
09:00. Allurralde. Larunbata, 16.

Apustua Santa Krutz jaietan

Aizkora
apustua
Apirilak 29 - 20:00 - Bekoplaza

TXATARRAS
ARIZMENDI



Asteburuko pilota partidak

Urnieta Jub-Aurrera Saiaz

20:00. Udaberri 4 1/2.
Apirilak 15, ostirala.

14:30. Irura.

Apirilak 16, larunbata.

Gipuzkoa-Errioxa GRAVNI

Julen Loitegi-Eñaut Esnaola

Urnieta Kad3-Gazteleku

Urnieta Kad1-Añorga.

Udaberri 4 1/2.

Apirilak 17, igandea.

Futbola, asteburuko partidak

ERREGIONAL OHOREZKOA

28. jardunaldia:

Tolosa 1-0 Euskalduna

29. jardunaldia. Larunbata, 16:

Euskalduna-Zarautz. 17:45.

PREFERENTE MUTILAK

25. jardunaldia:

Añorga 0-1 Urnieta

26. jardunaldia. Larunbata, 16:

Urnieta-Baskonia. 18:00.

Bi aldeko eskubaloia partida

Amenabar 32-35 Urnieta SenM

Lehen zatian 8-20 nabarmen hobeak izan ziren urnietarrek. Bigarren zatian Amenabarrek partidari beste erritmo bat ematea erabaki

zuen, defentsa-eraso trantsizio azkarrak eginez eta urnietarrei ezustean harrapatuz. Ordua eskatuz amaitu zuten. Zorionez, garaipena eskuan.

